

ZUREKIN GEHIAGO GARA

EU

ES




ALBISTEAK

Alberto Iñurrategi alpinistak inauguratu du 2018ko sagardo denboraldia

~ SAGARDOTEGI DENBORALDIA

Alberto Iñurrategiren eskutik abiatu da sagardo denboraldi 'historikoa'

AGENTZIAK | ERREDAKZIOA 2018/01/15

Ekoizleen esanetan, aurtengo sagardoa orekatua, aromatikoa, arina eta kolore gutxiagokoa da.

Orria entzun



 Partekatu 293  Tw eet Partekatu



Alberto Iñurrategi alpinistak egin du 2018ko lehen txotxa. Sagardo denboraldi berria abiarazteko ekitaldia **Gurutzeta sagardotegian** egin dute, Astigarragan.

Ohiturari jarraituz, soka dantzan joan dira kupelaz kupela eta "gure sagardo berria" esan ostean, lehen sagardoa dastatzeko ohorea izan du.

Ekitaldi honen 25. urteurrena zela eta, aurreko edizioetako parte-hartzaileak ere izan dira Iñurrategirekin batera, hala nola, **Andoni Egaña** bertsolaria, **Abraham Olano** txirrindulari ohia, **Andoni Luis Aduriz** sukaldaria, **Javier Clemente** futbol entrenatzailea, **Periko Alonso** futbolari ohia eta haren seme futbolaria Mikel eta **Jose Luis Korta** arraunlaria.

Sagardogileek agerraldia egin dute aurtengo uztari buruzko xehetasunak emateko eta haiekin batera Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko agintariak eta Zorione Etxezarraga Astigarragako alkatea izan dira.

Iñurrategik esan du beretzat "**ohorea**" dela sagardo denboraldiaren inaugurazioan parte hartzea, "**etxekoa eta kalitatezkoa**" den

ALBISTEAK (1)

Sagar uzta 'historiko' batekin lau milioi litro sagardo egin dituzte 2017an

BIDEOAK (1)



Alberto Iñurategik abiarazi du 2018ko txotx denboraldia Astigarragan

Ekoiileen esanetan, iazkoarekin alderatuta, **aurtengo sagardoa** orekatua, aromatikoa, arina eta kolore gutxiagokoa da.

Aurten **12 milioi litro ekoitzi dituzte**, iaz baino 500.000 litro gutxiago, baina sagarraren uzta "historikotzat" jo dute, kalitate handikoa izan delako. Gipuzkoako 6 milioi kilo sagar erabili dituzte Euskal Sagardoa Izendapena duen sagardoa egiteko.



(Argazkia: EFE)

zkia: EFE)

HAU ZURE INTERESEKOA BADA, BALITEKE BESTE GAI HAU EK ERE IZATEA:

Gipuzkoako albisteak | Gizartea bideoak | Astigarraga albisteak | Albisteak

Iruzkinak

PUBLIZITATEA

PUBLIZITATEA



ORAIN ALBISTE



ALBISTEAK - NAFARROA

Alerta egoera Castejonen eta Andosillan Ebro eta Ega ibaiengatik

Erlazionatutako edukiak:

 Tutera, Ebro ibaiaren uraldiaren zain

ALBISTEAK - FAKTORIA, ALTASUTIK

'Altsasu, herri oso bat, esnatu da'

KIROLA - ORDUTEGI OFIZIALAK

Real Sociedad-Athletic derbia, apirilaren 28an, larunbata, 16:15ean

 ALBISTEAK - MADRIL

Cifuentesen masterreko institutuaren zuzendaria kargugabetu du Unibertsitateak

 ALBISTEAK - JAVIER OLLO, ALKATEA

'Hau ez da terrorismoa. Justizia behar dugu, proportzionaltasuna'

 ALBISTEAK - LANUZTEAK

Vuelingeko pilotuek greba deitu dute apirilaren 25-26rako eta maiatzaren 3-4rako

 ALBISTEAK - KATALUNIA

Torrentek Pablo Llarena epailearen kontrako kereila aurkeztea proposatuko du

 KIROLA - TXAPELDUNEN LIGA 17/18

Gaur, finalerdietako zozketa

 KULTURA - EKAINAREN 1EAN ETA 2AN

Gaur egungo rock musikaren aldeko apustua egingo du Eibarko Ez Dok Fest jaialdiak

Albiste gehiago



BISITATUENA

ALBISTEAK **KIROLAK** **TELEBISTA** **IRRATIA**

1  Emakume bat hil da Polloeko tunelean hainbat autok harrapatuta

2  N-I errepidea itxita dago Itsasondon, luizi baten ondorioz

- 3  N-1 errepideak itxia orduak eman ditu Itsasondon, luizi baten ondorioz
- 4  Hezkuntza apirilera deituta zegoen greba astea bertan behera utzi dute sindikatuek
- 5  Jaurilaritzak alokairuaren % 50 arte ordaintzeko diru-laguntzak emango dizkie gazteei
- 6  Txandakako zirkulazioa Zarautz eta Getaria artean, luizi baten ondorioz
- 7  uholdeak
- 8  Larrialdi egoera ezarri dute Nafarroan, uholdeengatik
- 9  Emakume bat hil da hainbat autok harrapatuta, Donostiako saihebidetan
- 10  Oria ibaiak gainezka egin du Andoainen, Lasarten eta Tolosan; eta Urumeak, Hernanin



PUBLIZITATEA



PUBLIZITATEA

© EITB - 2018 -

Lege Oharra

Cookien erabilera

Gardentasuna

Kontaktua

Web mapa